

# EGOERA KRONIFIKATUA DUTEN PERTSONENTZAKO EGOITZA-ZENTROAK

Garrantzitsua

**Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.**

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

**Gizarte bazterketa egoeran dagoen pertsona > Aldi baterako edo egonaldi luzeko ostatu zerbitzua**

Fitxa osoa kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio laburtua.](#)

## Zertan datza zerbitzu hau?

Bazterketa kronifikatuko eta narriadura pertsonal eta sozial larriko egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak dira, egonaldi luzekoak, bertan gizarteratzeko jarduerak egin ahal izateko, esku-hartze erritmo pausatuan ([2.4.5 fitxa](#)). Egonaldia gizarteratzeko ibilbide bat betetzearen baldintzapean dago. Helburu hauek ditu:

- autonomia pertsonala sustatzea eta narriadura murriztea,
- gaitasun pertsonalak indartzea,
- ingurunean integratzeko eta parte hartzeko aukerak eskaintzea eta
- familia- eta gizarte-sareak indartzea.

Eginkizun horiek betetzeko, bazterketa-egoeran dauden pertsonen ongizate fisiko, psikologiko eta sozialera bideratutako arreta emateko profil egokiak dituzten diziplina anitzeko profesionalen talde baten laguntza dute. Informazio-, jarraipen-, bitartekotza- eta akonpainamendu sozialeko zerbitzuak barne hartzen ditu, bai eta laneratzea edo laneratzea helburu duten prestakuntza-aurreko jarduerak eta prestakuntza-jarduerak ere. Hala badagokio, intentsitate ertaineko osasun-laguntza, Otordu-, garbitegi-, garbiketa- eta zaintza-zerbitzuak barne har ditzakete.

## Nork jaso dezake zerbitzu hori?

18 urte edo gehiagoko pertsonak, **bazterketa kronifikatua** eta narriadura pertsonala pairatzen dutenak.

## Zein baldintza zehatz bete behar dira zerbitzua eskatzeko?

- 18 urte edo gehiago izatea.
- Eskabidea aurkeztu aurreko 6 hilabeteetan EAEko edozein udalerritan erroldatuta egotea.
- Laguntza-intentsitate ertain edo handia behar izatea.
- Arazoaz jabetzea eta egoera aldatzeko motibazioa izatea.
- Gizarteratzeko ibilbide bat egiteko konpromisoa hartzea.

## Zenbat balio du zerbitzuak?

**Doako zerbitzua.**

## Nori dagokio zerbitzu hori ematea?

**Foru Aldundien ardura** da zerbitzua ematea.

## Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

Zerbitzu honetan interesatuta bazaude eta gehiago jakin nahi baduzu, Gizarte Zerbitzuetan lan egiten duten pertsonekin hitz egin dezakezu. Nola funtzionatzen duen eta zerbitzu hori nola balia dezakezun azalduko dizute. Esaiguzu zure udalerrria eta harremanetarako lekuak eta datuak adieraziko dizkizugu.

## Zer arauk ezartzen du zerbitzu hori?

Zorroaren jatorrizko fitxarako sarbidea

## Informazio gehiago:

- [Gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak Araban](#)
- [Gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak Bizkaian](#)
- [Gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak Gipuzkoan](#)

[Fitxa laburrera itzuli](#)